

ORIENT EXPRESSEKO HILKETA



EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA
DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 4. maila

Ana Belén Vega

ORIENT EXPRESSEKO HILKETA

Irakasgaiak: Euskara, Literatura Unibertsala, Historia

Gaia: Irakurmena eta mintzamena

Maila: 4 DBH

Saio kopurua: 6 ordu*

Proposamenaren testuingurua:

Egunero kontatzen ditugu gertatutakoak, entzundakoak, irakurritakoak, ikusitakoak... sekuentzia honetan ere ikasleek kontatuko egingo dute, baina irakurritakoa. Horrela, irakurmena eta ahozketasuna, batez ere, landuko dituzte.

“Orient Expresseko hilketa” Agatha Christie-ren eleberri ospetsua izango da abiapuntu. Ikasleak ipuin-kontalari arituko dira, bakoitzak kapitulu bat irakurriko du eta gero besteei kontatuko die. Bitartean besteak entzule aktiboak izan beharko dira nobelaren mamiaz jabetzeko.

*Sekuentzia hau beste proiektu batekin integratu behar da; izan ere, proposatuko diren jarduerak burutzeko, ikasleak, eguneko, bizpahiru minutuan, gutxi gora behera, baino ez dira arituko.

Landuko diren oinarritzko gaitasunak:

- ✓ Hizkuntza komunikaziorako gaitasuna (1go., 2., 3., 5., 6. jarduerak)
- ✓ Ikasten ikasteko gaitasuna (1, 2., 3., 7. jarduerak)
- ✓ Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna (2., 3., 7. jarduerak)
- ✓ Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasuna (2., 4., 7. jarduerak)
- ✓ Gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna (2., 4. jarduerak)
- ✓ Giza eta arte kulturarako gaitasuna (1., 2. jarduerak)

Helburu didaktikoak:

- ✓ Irakurritako kapitulua ulertzea.
- ✓ Ahozko eta idatzizko literaturaren ezaugarriak ezagutzea.
- ✓ Literatura obra hau autonomiaz irakurtzea eta, obra eta egilearen kultura-testuingurua ezagutzea.
- ✓ Irakurritako kapitulua ahoz koherentziaz, zuzentasunez eta egokitasunez adieraztea.
- ✓ Irakurketa ozenki hobetzea.
- ✓ Informazio-teknologiak gero eta autonomia handiagoz erabiltzea.
- ✓ Irakurtzea eta ahoz aurkeztea eperako.
- ✓ Errespetuzko eta lankidetzarako jarrera izatea.
- ✓ Jarduerak egiterakoan jarrera positiboa eta aktiboa izatea.
- ✓ Besteen lana baloratzea.
- ✓ Ahozko adierazpenak euskaraz egiteko interesa agertzea.
- ✓ Ebaluazioan aktiboki parte hartzea eta ahozko testuak norberak ebaluatzeko eta zuzentzeko estrategiak erabiltzea.

Edukiak:

- ✓ Informazioa biltzeko prozedurak.
- ✓ Testuak laburtzeko prozedurak
- ✓ Ahozko azalpenaren planifikazioa.
- ✓ Ahozko adierazpenerako zenbait estrategiaren erabilera.
- ✓ Irakurketa ozenki.
- ✓ Ahozko eta idatzizko literaturaren ezaugarriak.
- ✓ Auto-ebaluazio eta auto-zuzenketa estrategien erabilera.
- ✓ Agatha Christie idazlearen biografia
- ✓ Literatura-testuko testuinguru kulturalaren ezaugarriak.
- ✓ Literatura lanak irakurtzeko eta jendaurrean azaltzeko jarrera positiboa eta aktiboa.
- ✓ Komunikazio-harremanetan, lankidetzarako eta errespetuzko jarrera.

Jardueren sekuentzia:

- a) Planifikatzea:
 - 1. Ahozko literatura eta idatzizko literatura
 - 2. Ikerketa
- b) Gauzatzea:
 - 3. Ahozko azalpenak
 - 4. Liburuko pertsonaiak
 - 5. Ozenki irakurtzen
- c) Erabiltzea:
 - 6. Irakurtzen eta kontatzen
 - 7. Ebaluatzen: nire lana eta sekuentzia hau

Ebaluazioa

Adierazleak:

1. Ea obraren eta egilearen kultura-testuinguruari buruzko ikerketa egiten duen.
2. Ea testua ulertzen duen.
3. Ea ahoz informazioa ordenatuta eta argi ematen duen.
4. Ea entzute prozesuan besteen lana baloratzen duen eta adi entzuten duen.
5. Ea ahoskera eta intonazio egokia erabiltzen duen.
6. Ea informazio garrantzitsua bilatzen eta hautatzen duen.
7. Ea auto-ebaluazio eta auto-zuzenketa- estrategiak erabiltzen dituen.
8. Ea talde lanean parte hartzen duen eta besteen parte hartzeak errespetatzen dituen.
9. Ea IKTak autonomiaz erabiltzen dituen.
10. Ea aurrez markatutako epeak errespetatzen dituen.
11. Ea jarrera positiboa eta aktiboa duen bere esperientzia eta ikuspegia adierazten.

Tresnak:

- ✓ Jardueren sekuentzian:
 - ✓ Hasierako ebaluazioa: 1. jarduera
 - ✓ Prozesuaren ebaluazioa: gainontzeko jarduerak
 - ✓ Azken ebaluazioa: ikasle bakoitzaren ekoizpena
- ✓ Irakasleak erabiliko duen beste edozein:

ORIENT EXPRESSEKO HILKETA

1. JARDUERA

Literatura hitza entzuten dugunean liburu bat datorkigu burura, baina idazkera sortu aurretik gizakiak literatur lanak sortzen zituen eta ahoz transmititzen ziren. Gaur egun aldiz, literatura idatziz sortzen eta gordetzen da eta, noski, lan horiek idatziz transmititzen zaizkie ondorengoei.

Idazkera sortu zenetik, mendez mende, ahozko literatura eta literatura idatzia elkarrekin bizi izan dira mendebaldeko gizartean, baina bakoitzak bere esparrua zuen: ahozkoa, herri xehearena, eta idatzizkoa, goi mailako pertsonen artekoa (unibertsitatean eta eliz gizonen artean), beraiek bakarrik zekitelako irakurtzen eta idazten.



Azken mendean gauzak asko aldatu dira eta ahozko literatura kaltetua suertatu da. Garai batean, etxean afaldu ondoren entretenitzeko egin ahal zen gauza bakarra ikasitako ipuinak kontatzea edo bertso berriak kantatzea zen. Gazteek entzundakoa ikasten zuten eta horrela gordetzen ziren ipuin eta kanta hauek. Gaur egun ahozko transmisio honek huts egin du, iratiak, telebistak, bideojokoek, ordenagailuek eta bestelakoek bete dute gure aisialdia eta. Ipuinak kontatzeko eta entzuteko, taldeka jolasteko, familiarekin batera egoteko denborarik ez, eta horrela, ahozko literaturarako ere leku gutxi geratu

da, eta pixkanaka-pixkanaka desagertuz joan da.


Dakizuenetz, ipuinen jatorria ahozko literaturan dago eta, gainera, munduko hizkuntza guztietan landu den jeneroa da, baina nolakoak izango ziren ipuin hauek? Ahoz kontatzekoak zirenez ulerterrazak eta laburrak izan behar zuten, pertsonaia gutxi, istorioa sinplea, korapilo handirik gabekoa, ia deskribapenik ez eta elkarriketak ere oso sinpleak. Orduan benetan garrantzitsua zena bakarrik kontatu behar zen eta, jakina, modu entretenigarri baten azalduta.

Sekuentzia didaktiko honetan ipuin-kontalariarena eta entzulearena egingo duzuenetz komeni da hau guztia aintzat hartzea. Horretarako, hausnarketa txikia egiten hasiko gara: pentsatu zeintzuk diren ahozko literaturaren eta idatzizkoaren ezaugarriak eta taula bete:

Ahozko literaturaren ezaugarriak	Idatzizko literaturaren ezaugarriak

2. JARDUERA

Askotan liburu bat hartzen dugu irakurtzeko eta ulergaitza egiten zaigunez, irakurtzeari uzten diogu. Zergatik? Liburuan azaltzen den garaia ezezaguna delako, agian pertsonaiak edo gertakizunak bitxiegiak, dena oso korapilatsua... azken finean, ulergaitza.



Horregatik, ona da aldeztu aurretik liburuari buruzko zerbait jakitea, komenigarria, orduan, ikerketatxoa egitea. Beste batzuetan, behin irakurrita, jakin-mina sortzen zaigunez, liburuari buruzko gora behera guztiak aztertzen hasten gara, dena ezagutu nahian.

Kasu honetan, irakurri aurretik egingo dugu ikerketa hori, horrela errazago irakurriko duzue. Zenbat eta gehiago jakin, gehiago gozatu ahal izango duzue irakurketarekin.

Agatha Christie-ren “Orient Expresseko Hilketa” eleberri ospetsua irakurriko duzue, irakurketa berezi bat izango da, baina gero geroakoak.



Orain, sei taldetan banatu eta bakoitzak gai bati buruzko ikerketa egingo du. Aurkitutako informazio guztia irakurri ondoren, **azalpen testu bat** idatziko duzue, ez da beharrezkoa oso sakona izatea, baina ez ahaztu azalpen testuen helburua modu objektiboz informatzea dela, ez ahaztu ezta, testu-tipo hauen egitura:

- ✓ **Sarrera:** gaia aurkeztu.
- ✓ **Garapena:** informazio aipagarria koherentziaz eskaini.
- ✓ **Ondorioa:** aipatutako puntu nagusien sintesia.

Talde lana izango denez, lana antolatu beharko duzue. Orduan, komenigarria da hurrengo pausu hauek jarraitzea:

1. Aztertu zer egin behar duzuen
2. Antolatu edo banatu lana
3. Birpasatu azken ekoizpena denen artean
4. Bete A. FITXA

A. FITXA

Zure taldearen zenbakia:.....

Zure izena:.....

Taldeakideak	Zer egin du?	Bere lanaren balorazioa
		1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
		1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
		1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
		1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

Baloratu zure lana: **1 2 3 4 5 6 7 8 9 10**

Baloratu azken ekoizpena: **1 2 3 4 5 6 7 8 9 10**

Arazorik?:.....

Hemen talde bakoitzaren lana:

1go TALDEA

Esan dugunez, irakurriko duzuen eleberraren **idazlea Agatha Christie** da. Zer dakizu berari buruz? Hemen dituzu helbide batzuk:

http://eu.wikipedia.org/wiki/Agatha_Christie

<http://www.ikasbil.net/jetspeed/idadziak/7688.pdf> (30.-31. orr.)

<http://www.eizie.org/Argitalpenak/itzulpena/nilo.pdf>

<http://www.igela.com/dokumentuak/aurkezpen2004.doc>

http://en.wikipedia.org/wiki/Mary_Westmacott (ingelesez)

<http://uk.agathachristie.com/about-christie/the-queen-of-crime/biography/> (ingelesez)

<http://alcazaba.unex.es/~rbarraga/aga1.html> (gaztelaniaz)

http://es.wikipedia.org/wiki/Agatha_Christie (gaztelaniaz)

http://www.elpais.com/articulo/cultura/estado/fuga/Agatha/Christie/elpepucul/20061015/elpepucul_2/Tes (gaztelaniaz)



Gogoratu ez duzuela testu sakon bat, xehetasun guztiekin, idatzi behar. Hemen informazio asko duzue, irakurri patxadaz, banandu lana, eta sintesia egin. Zer da garrantzitsuena? Bada, biografi datu batzuk, inportanteenak, bitxikeriaren bat eta bere estiloa eta lanei buruzko orokortasun batzuk, besterik ez da behar.

2. TALDEA



Nobela honetako **protagonista Poirot detektibea** da. Zer dakizu berari buruz? Hemen dituzu helbide batzuk, irakurri informazioa eta laburtu nolako den pertsonaia hau, nondik sortu den eta nolako lana egiten duen:

<http://www.eizie.org/Argitalpenak/itzulpena/orient.pdf>

<http://uk.agathachristie.com/story-explorer/characters/poirot/> (ingelesez)

http://es.wikipedia.org/wiki/H%C3%A9rcules_Poirot (gaztelaniaz)

<http://alcazaba.unex.es/~rbarraga/aga1.html#personajes> (gaztelaniaz)

3. TALDEA

Irakurriko duzuen **polizi eleberria** da. Munduan eleberri hauek irakurrienak dira. Baina, zer dakizu honetaz? Hurrengo helbidean informazioa duzu, laburtu puntu interesgarrienak: eleberri hauen ezaugarriak, motak, idazle ospetsuenak, literatura balioa eta arrakastaren arrazoiak, batez ere:

http://www.iakingunea.com/50urte/pdf/Jakin98_105/Jakin98_105_053.pdf

<http://alcazaba.unex.es/~rbarraga/aga1.html> (gaztelaniaz)



4. TALDEA

Agatha Christie-k **1934an** idatzi zuen “Orient Expresseko hilketa”. Zer gertatzen ari zen munduan garai horretan?

Hemen dituzue helbide batzuk garai horretaz ikertzeko. Informazio asko dago, baina **gogoratu** laburpen txiki bat besterik ez duzuela behar: irakurri patxadaz, banandu lana, eta sintesia egin. Garai honen izena, ezaugarri nagusiak eta gertakizun garrantzitsuenak aipatuz nahikoa izango litzateke. Seguruenik, gizarteko testuliburuan ere informazioa topatuko duzue.



Bigarren helbidean aipatzen dira garai hartako bi gertakizun Agatha Christiek eleberri honen abiapuntutzat hartu zituenak, hitz egin ezazue hauei buruz ere zuen idatzian.

http://www.hiru.com/historia/historia_07700.html

<http://www.igela.com/dokumentuak/aurkezpen2004.doc> (bi gertakizun)

<http://historiadelmundocontemporaneo.wordpress.com/2008/03/02/el-periodo-de-entreguerras/> (mapa kontzeptualak gaztelaniaz)

<http://www.historiasiglo20.org/EG/index.htm> (gaztelaniaz)

<http://www.azc.uam.mx/csh/sociologia/sigloxx/cronologiadelsigloxx.html> (gaztelaniaz)

Hemen dituzue bi aurkezpen gaztelaniaz garai hura hobeto ulertzeko:

<http://pedrocolmenero1.googlepages.com/his1-t07-pres-consecuenciaseconomicas>

<http://pedrocolmenero1.googlepages.com/his1-t09-pres-crisisentre guerras>

5. TALDEA



Europako mapak aldaketa batzuk izan ditu 1934tik gaur egunera. Zeintzuk izan dira? Bilatu urte hartako mapa bat eta gaur egungoa. Komentatu desberdintasunak, ikertu estatu berri batzuen sorrera, baita noiz eta zergatik gertatu ziren aldaketa horiek ere.

Hemen dituzue helbide batzuk:

<http://www.luenticus.org/mapas/europa.html> (gaur egungo mapa)

<http://www.euroaventura.net/castella/homecast/eurotemes/launidad europea/fronteraspoliticas/index.html> (mapa historikoak)

<http://www.librosvivos.net/smtc/homeTC.asp?TemaClave=1008> (aldaketen zergatiak)

<http://web.educastur.princast.es/ies/moreda/depart/filosofia/031-filosofia%20contemporanea.htm> (mapa historikoak)

http://eu.wikipedia.org/wiki/Europa#Europako_estatuak (Europako estatuen informazioa)

6. TALDEA

“Orient Expresseko hilketa” da eleberri honen titulua. Badakizue zer den **Orient Express**?. Hemen dituzue helbide batzuk, baina informazio guztia ingelesez edo gaztelaniaz dago. Ez duzue itzultzailearen lana egin behar, irakurri ondoren egin laburpen txiki bat euskaraz eta garrantzitsuena kontatu.

http://www.orient-express.com/web/vsoe/vsoe_c1b_heritage.jsp (web orri ofiziala, ingelesez, informazio guztia: historia, konpartimentuak nolakoak diren, ibilbideak, menuak, eskaintzak, prezioak.... Interesgarriena arakatu)



http://es.wikipedia.org/wiki/Expreso_de_Oriente (gaztelaniaz)

<http://www.cuisine.com.ar/detalle?id=227> (gaztelaniaz)

3. JARDUERA

Orain ahozko azalpenak eman beharko dituzue. Pentsatu zer egin behar den horretarako eta saiatu hurrengo taula betetzen:

Zer egin behar dut AHOZKO AZALPENAK emateko?	
➤	
➤	
➤	
➤	
➤	
➤	
➤	

Ikerketa eta horren laburpen idatzia egin ondoren berriro taldeak sortu, baina oraingo honetan aurreko 1go, 2. , 3. , 4. , 5. eta 6. taldeetako kide bana egon behar da talde bakoitzean. Orain informazioa elkarrekin trukatu beharko duzue, kide bakoitzak aurreko taldean egindakoa kontatu beharko die besteei. Kontuan izan aurreko taulan idatzitakoa. Amaitzen duzuenean, *B.FITXA* bete.

B. FITXA			
Zure izena:.....			
Zure gaia:.....			
Ikaslea eta gaia	Zer egin du ondo?	Zer hobetu behar du?	Bere azalpenaren balorazioa
			1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
			1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
			1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
			1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
			1 2 3 4 5 6 7 8 9 10
Baloratu zure ahozko azalpena: 1 2 3 4 5 6 7 8 9 10			

Agian, zuen kideak entzun ondoren, gauza gehiago bururatu zaizkizue ahozko azalpenen taulan gehitzeko. Sartu taulan eta komentatu denon artean idatzi duzuen.

Ondoren, irakasleak azaldutako testuak batu, zuzendu baloratu, fotokopiatu eta banandu egingo ditu denon artean, horrela nahi duzuenean irakurri ahal izango duzue batutako informazio guztia.

4. JARDUERA


Orokorrean, polizi eleberrietan pertsonaiak delinkuenteak edo behe klasekoak izaten dira. Agatha Christie-ren pertsonaiak, berriz, oso bereziak dira. Bere liburuetan, normalean, lehenengo orrian agertzen da pertsonaien zerrenda, baina euskarazko bertsio honetan zerrendarik ez dagoenez, hemen dituzu eleberri honen pertsonaiak. Gainera, bat emanez, zer esan ahal duzu pertsonaia hauei buruz? Badute ezaugarri komunik?



POIROT DETEKTIBEA



M. BOUC, ZUZENDARIA



SAMUEL EDWARD RACHETT: Ez du itxura erakargarria, baina sekretu iluna gordetzen du. Mafiakoa da, bere benetako izena: Cassetti.



HECTOR WILLARD MACQUEEN: Amerikar gaztea, garaia eta dotorea, biktimaren idazkari eta interpretaria.



EDWARD HENRY MASTERMAN:
Biktimaren gelazaina.



PIERRE MICHEL: Wagon Lit-eko
antolatzaile frantsesa



MARY HERMIONE DEBENHAM:
Britaniarra, etxe-irakasle Bagdad-en



ARBUTHNOT KORONELA: Indiatik
Ingalaterarra bueltan doan Britaniar
armadako ofiziala



NATALIA DRAGOMIROFF PRINTZESA:
Errusiako printzesa, ez oso erakargarria



HILDEGARDE SCHMIDT: printzesaren
zerbitzari alemaniarra



ANDRENYI KONDE ETA KONDESA:
Kondea Hungariako diplomatikoa



GRETA OHLSSON: Suediarra, biktima
bizirik ikusi zuen azkena



MRS. CAROLINE MARTHA HUBBARD:
Andre amerikar adinekoa, bere alaba
bisitatzetik dator, Bagda-etik bueltan.



ANTONIO FOSCARIELLI: auto saltzaile
italiarra, amerikar hiritar bihurtua




CYRUS BETHMAN HARDMAN: marina-
zinta saltzaile, baina, errealitatean,
ikertzaile pribatua

CONSTANTINE MEDIKUA

Argazki gehienak hurrengo helbidetik atera dira:

<http://www.moviescreenshots.blogspot.com/2007/10/murder-on-orient-express-1974.html>

Eta nortzuk dira? Bada, 1974an liburu honen filma egin zen eta horiek dira filme hartan parte hartu zuten aktore aktoreak. Ipin klaseko kortxoan argazki hauek dauden bezala edo helbide horretatik hartuta zuen gustura moldatuta. Horrela, pertsonaia hauek aurpegia izango dute eta errazago egingo zaizue liburuaren irakurketa berezia. Komenigarria da ondorengo marrazkia ere kortxoan ipintzea, oso lagungarria izango da jakiteko bakoitzaren logela zein den eta non dagoen. Dena den, liburutik atera ahal duzue fotokopia.



5. JARDUERA

Liburua irakurtzen hasiko zarete. Lehenengo bi kapituluak klasean irakurriko dituzue ozenki, ikasle bakoitzak zati bat. Horretarako, kontuan hartu hurrengo aholku hauek:

1. Astiro irakurri.
2. Ahoskatu ondo eta ahotsa modelatu idazleak adierazi nahi duena kontuan izanik.
3. Ziurtasunez irakurri, ez errepikatu ezta totelka hitz egin ere.
4. Eman intonazio egokia, eta hitz-gakoak nabarmendu.
5. Etenak egin, puntuazio-zeinuak kontuan izanik.
6. Doinu egokiari eutsi, ez oso baxu, ezta zarataka ere.

6. JARDUERA



Orain, bi ikaslek irakurriko dituzte 3. eta 4. kapituluak etxean eta hurrengo egunean ikasle batek 3. kapituluak kontatuko du eta besteak 4.a. Horrela, egunero, bi ikaslek bi kapitulu irakurriko dituzte, baina bakoitzak irakurritako bietatik bat baino ez du kontatuko. Aldez aurretik erabaki nork zein kontatuko duen, baina bi kapituluak irakurri

behar dira. Irakurri ondoren, laburpentxo bat prestatu dezakezue, hurrengo egunean nahi baduzue laburpentxo hori aurrean eduki dezakezue, baina ariketa ez da irakurtzea, kontatzea baizik.

Horrela 3. zatira heldu arte. Zati honetako lehenengo (*"Guztien artetik nor ote?"*) eta bigarren (*"Hamar galdera"*) kapituluak berriro klasean ozenki irakurri behar dituzue, aurreko jarduerako aholkuak jarraituz. Bi kapitulu hauek xehetasunez beterik daude eta oso zailak dira kontatzeko, horregatik aholkatzen dizuegu ozenki irakurtzea.



Gero, jarraitu egunero bi ikaslek bi kapitulu irakurtzen eta kontatzen azken kapitulura heldu arte eta hau ere, denok elkarrekin irakurri klasean.

Irakurri duzuen besteak kontatzeko, kontuan izan 1go jardueran eta 3. jardueran esandakoak ahozko literaturari eta ahozko azalpenei buruz. Bitartean, entzuleek, klaseko gainontzekoek, adi-adi entzungo dute. Oso garrantzitsua da haria jarraitzea bestela ez duzue ulertuko. Gainera, zuen kideen azalpenak baloratu egin beharko dituzue. Seguruenik hemen dituzuen ideiak oso lagungarriak izango dira balorazio hori egiteko:



- ideiak antolatuta daude, ordenatuta eta objektiboki transmititzen ditu
- astiro hitz egiten du eta ondo ahoskatzen du
- intonazioa egokia da, hitz-gakoak nabarmentzen ditu; ez da ez monotonia ezta nabarmenegia ere
- naturaltasunez hitz egiten du, ez du ematen buruz ikasi duela, ezta ez duela prestatu ere.
- hitz zehatzak erabiltzen ditu
- ez du “makulu” hitzik erabiltzen
- keinuak egiten ditu adierazkorragoa izateko
- entzuleei begiratzen die, baina begirada ez dago puntu batean galduta
- entzuleen arreta lortzen du
- erritmo egokia mantentzen du

Hau guztia kontuan hartuz C. FITXA bete behar duzu entzulearena egiten duzun bakoitzean:


C. FITXA			
Zure izena:.....			
Ikaslea eta kapitulua	Zer egin du ondo?	Zer hobetu behar du?	Bere azalpenaren balorazioa
			1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

7. JARDUERA

Orain lana amaitzeko iritzia eman eta klaseko kideekin alderatu:

- ✓ Harrigarria liburuaren amaiera, ezta? Gustatu zaizu?
- ✓ Eta irakurketa-kontaketa esperientzia zer iruditu zaizu?
- ✓ Zergatik uste duzu nobela hau zatika irakurtzea posible izan dela?
- ✓ Eleberri guztiekin egin liteke hori?
- ✓ Proposatuko zenuke libururen bat horrela “irakurtzeko-kontatzeko”? Zein?
- ✓ Zer ikasi duzu sekuentzia honetan?
- ✓ Egindako jardueren artean zein gustatu zaizu gehien? eta gutxien?
- ✓ Zerbait aldatzekotan zer izango litzateke? Nola aldatuko zenuke?
- ✓ Zerbait gehiago proposatuko zenuke?
- ✓ Zer iruditu zaizu zaila?
- ✓ Nola konpondu zara zailtasunak gainditzeko?
- ✓ Behar izan duzun laguntza izan duzu?

- ✓ Taldeka aritu zaretenean arazorik izan duzu? Nola konpondu duzue?
- ✓ Ikasi dituzun gauzen artean zein izan da baliogarriena edo gehien gustatu zaizuna?
- ✓ Eman sekuentzia osoaren balorazioa.



Nahi baduzu idatzi komentario txiki bat zure iritzia eman ez irakurketa-kontaketa esperientzia honi buruz eta bidali hurrengo helbidera:

<http://bloggediversificacion.wordpress.com/2008/10/22/iburu-oso-bat-irakurri-behar-dugula/>